

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Jardueraren
laburpena
2017

Aurkezpena	7
-------------------	---

Jardueraren laburpena

Publikoak

Nork bisitatzen gaitu eta zer pentsatzen du?	11
Balorazioa	13

Programazioa

Mezenasei eta bildumei buruz: <i>Rachel L. Mellon Collection</i> erakusketa	15
Sarrera berriak bildumetan	17
Modaren kultura baterantz: programa hezitzailea publiko guztientzat	18
Moda ezagutzarako tresna gisa	18
Moda sentsibilizaziorako tresna gisa	19
Moda integraziorako tresna gisa	19
Modaren tradizioa eta ofizioa	21
Balenciaga transmititu, Getariatik mundura	21
Teknifikazioa: Museoa eta Modako profesionalak	23
Museoa, aukera kulturalen gune	25
Hitzaldiak / jardunaldiak / topaketak	25
Programazio kulturala	26

Komunikazioa

Nazioartean inpaktua zabaltzeko asmoz	29
Hedabideak eta erreferentziazko kazetariak	30
Museoaren webgunea hazten	31
Contenidos digitales para llegar a una audiencia global	32
Argitalpenak eta publizitate-tresnak	33

Informazio ekonomikoa

Gardentasuna	35
--------------	----

Cristóbal Balenciaga Fundazioa

1999an sortua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan F-91 zenbakiarekin erregistratua, Fundación Cristóbal Balenciaga / Cristóbal Balenciaga Fundazioaren helburua da Getarian sortutako Cristóbal Balenciaga Eizaguirre moda-sortzaileak eta bere nortasunak modan, goi-mailako jostintzan eta jantzien diseinuan izandako garrantzia sustatzea, hedatzea eta indartzea.

Hauek dira Fundazioaren Patronatua osatzen duten erakunde publikoak:

- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA, bi ordezkariarekin.
- EUSKO JAURLARITZA, bi ordezkariarekin.
- KULTURA MINISTERIOA, bi ordezkariarekin.
- GETARIAKO UDALA, ordezkari batekin.

Halaber, Fundazioaren Patronatua eremu pribatuko beste kide batzuek osatzen dute; besteak beste, acme elkarteko (Asociación De Creadores de Moda de España) ordezkari batek eta hiru patrono pribatuk.

Hauek dira fundazioaren ohorezko karguak:

- Ohorezko presidenteak:
Espainiako Errege-erreginak.
- Presidente fundatzailea:
Monsieur Hubert de Givenchy

Aurretik aipatutako helburuetarako, Fundazioaren tresna nagusia Cristóbal Balenciaga Museoa da, zeina zuzenean Fundazioak kudeatzen duen, eta 2011ko ekainaren 6an zabaldu zen Getarian.

Donostiako tailerrak. 50.hamarkadan.
© Cristóbal Balenciaga Museoa



Aurkezpena

Cristóbal Balenciagak Donostian ireki zuen lehen etxearen 100. urteurrena izan da 2017an eta 80 urte bete dira Balenciaga-Paris zabaldu zela. Ospakizun horrek gaien arabera antolatutako programazioa sortzeko aukera eman du, eta haren bidez ikusgarritasun handia eskuratzekoa, marka propioz eta haren aurkezpena eginez Donostian, Madrilen eta Parisen.

Nazioarteko beste erakunde batzuek ere, hala nola Parisko Musée de la Mode de la Ville, Palais Galliera eta Victoria & Albert Museum, parte hartu dute urteurrenean, hori dela eta Balenciagari buruzko erakusketak programatu, eta haiekin lankidetzan aritu da Fundazioa.

Erakusketei dagokienez, «Rachel L. Mellon Collection» erakusketa, Ipar Amerikako dama handi horrek utzitako bildumari eskainia osorik eta Hurbert de Givenchyk zuzendua, izan da ekitaldirik nabarmenena, eta ia 34.000 pertsonaren bisita jaso du. «Ikatz eta belusa. Ortiz Echagüeren eta Balenciagaren begiradak herri-jantziari» erakusketak, hori ere museoak ekoitzia eta elkarrizketan jartzen zituena argazkigintza eta moda, oso harrera ona izan du, orobat, eta 17.000 pertsonak bisitatu dute urtariletik maiatzera bitarte. Bi erakusketa horiek 4 hizkuntzatan argitaratutako katalogoak izan dituzte.

Museoak, Google Institutuen *We Wear Culture* plataformaren bidez, 3 erakusketa aurkeztuz, izan duen presentzia digitalari dagokionez, 50.000 bisita jaso ditu mundu osoan. Bestalde, *Rachel L. Mellon Collection* erakusketaren edukiei buruzko museoaren appak 5.842 deskarga izan ditu.

100. urteurrenaren testuinguruan, Moda Berrikuntzako Cristóbal Balenciaga Museoaren I. udako eskola jarri da abian, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Kutxa Fundazioaren eta Donostiako Sustapenaren lankidetzaz. Lehen urte honetan modaren arloko ekintzailatza hartu da gaitzat, eta hain zuzen ere testuinguru horretan euskal sortzaileei erakusteko espazioa uzteko programa sortu da, «tokiko diseinuaren gunea» ekimenaren bidez.

Horrez gain, hezkuntzaren arloan, nabarmentzekoa da University of the Arts London-eko Central Saint Martins moda arloko hezkuntzako zentroarekin batera abian jarritako nazioarteko proiektua, zeinak, 2016an izandako lehen esperientzia pilotu baten eta haren balorazio oso positiboaren ondoren, Londresko eskolako BA Fashion Design Womens Wear, BA Fashion Print eta BA Fashion Communication-eko ikasleak Cristóbal Balenciagaren jatorria ezagutzera bultzatu dituen, bai eta horrek jostunaren sormen-lanetan izandako pisu erabakigarria

C. BALENCIAGA

1917  2017

ere, Getariako museorako Study trip batekin eta ikerketako eta sorkuntzako proiektu indibidual batekin. Hain zuzen, Museoak proposatutako gaiari buruzkoa: Balenciaga and the Popular Costume eta *Ikatza eta Belusa. Ortiz Echagüeren eta Balenciagaren begiradak herri-jantziari* erakusketari lotutakoa. Lanik onenen aukeraketarekin, Fashion Communication-eko ikasleek online erakusketa bat eta erakusketa fisiko bat osatzeko materialekin komisario-lanak, argazkiak eta grabazioak egin zituzten, Victoria & Albert Museum-ekin lankidetzan.

Urtea, gainera, irudian eta ospian izandako inpaktu positibo batez itxi da; hala egiaztatzen dute bisitarien gogobetetze inkesta propioek (9,65/5eko gogobetetzea) zein kanpokoek (Google-ren balorazioa 4,5/5, Trip advisor-ena 4,5/5, minube-rena 5/5, facebook-ena 4,8/5) zein 2 milioi eurotik gorako balioa duen inpaktu komunikatiboa sortzeak.

Horrek guztiak baieztatu egiten du 2017an sendotu egin dela Museoaren azken 3 urteetako joera progresiboa, sektorean pisu espezifiko irabaziz, bai eta posizionamendu erreferentziala ere.

C. Balenciaga. Avenida de la Libertad eta Vergara kaleak.
© Guregipuzkoa.eus/
Cristóbal Balenciaga Museoa



Jardueraren laburpena 2017



Publikoak

Nork bisititzen gaitu eta zer pentsatzen du?

Bisitarien eta erabiltzaileen kopuruan izandako bilakaera goranzko joerari eusten ari zaio azken urteetan, eta jarduera handieneko urte-sasoia, dudarik gabe, uda izan arren, goi-denboraldia apirilean hasi eta urrira arte iristen da, biak barne. Azken urtean, aurreko urtearekin alderatuta izandako hazkundea % 14koa izan da.

	2014	2015	2016	2017
Urtarrila	1.481	1.190	2.082	1.113
Otsaila	1.367	1.142	2.104	1.830
Martxoa	1.714	2.144	3.557	2.214
Apirila	3.550	3.391	3.481	4.379
Maiatza	3.951	4.563	4.663	4.382
Ekaina	3.789	3.954	4.068	5.034
Uztaila	4.119	5.131	5.205	7.109
Abuztua	6.214	7.203	6.846	10.198
Iraila	3.489	3.712	4.217	4.769
Urria	3.413	3.421	4.704	5.776
Azaroa	2.822	1.784	1.884	2.563
Abendua	1.634	2.104	2.274	1.983
	37.543	39.739	45.085	51.350

Aurreko urtearekin alderatua, nabarmentzekoa da atzerriko publikoak estatukoarekin alderatuta izan duen gorakada


Museoa irekita edukitzeko ordutegia aldatu da ekitaldi honetan, goi-denboraldian museoa ordu gehiagoz eduki baita irekita, eta behe-denboraldian, aldiz, murriztu egin da ordu-kopurua. Maiatzean museoa hiru astez egon zen itxita, erakusketa aldaketa zela-eta.

- Behe-denboraldia (azaroa-otsaila): asteartetik igandera, 10:00etatik 15:00etara
- Erdi-denboraldia (martxotik urrira): asteartetik igandera, 10:00etatik 19:00etara
- Goi-denboraldia (uztaila eta abuztua): astelehenetik igandera, 10:00etatik 20:00etara

Bisitariaren soslaiari eta museoaren erakusketen edukiei dagokionez, urtero egiten den publikoen azterketak emaitza hauek erakusten ditu:

- Bisitarien % 25 gizonezkoak izan ziren eta gainerako % 75 emakumeak; horrek museoeko publikoaren feminizazioa areagotu dela erakusten du aurreko urteko datuekin alderatuta (%30 eta %70 hurrenez hurren).
- Inkestatutakoen % 14 25 urtetik beherakoa zen. % 14, 25 eta 40 urte artekoa; % 40, 41-55 urte artekoa; eta % 32, 55 urtetik gorakoa. Bisitarien batez besteko adinaren beherakada bat hauteman da aurten, aurreko urtearekin alderatuta, aurten bisitarien batez besteko adina 42 baita, eta iaz 48.
- Inkestatutakoen % 85 goi-mailako ikasketak egindakoa da eta % 70 beste museo batean egon da azken 3 hilabeteetan (Guggenheim Bilbao, Bilboko Arte Ederren Museoa, San Telmo Museoa, Tabakalera, Museo del Prado, Museo Thyssen-Bornemisza, Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofia eta abar).
- Eguneko planari dagokionez, kasuen % 65ean museoa plan zabalago baten parte da, eta plan horretan Getarian -aurretik edo ondoren- otordua egitea sartzen da. Bisitarien % 35 museoa ikustera dator Getariara eta gero aukera baliatzen du paseatzeko, zerbait hartzeko edo Zarautz eta Zumaia bisitatzeko.
- Jatorriari dagokionez, inkestatutakoen % 42 atzeritarrak ziren, eta atzerriko herrialdeen artean Frantzia nabarmentzen da batez ere (% 24). EAETik etorria da inkestatutakoen % 20, eta horien artean gipuzkoarrak (% 11) eta bizkaitarrak (% 6) dira gehienak. Inkestatutakoen artean presentzia handia duten beste erkidego batzuk Madril (% 10), Katalunia (% 2) eta Nafarroa (% 10) dira. Aurreko urtearekin alderatuta, nabarmentzekoa da atzerriko publikoak estatukoarekin alderatuta izan duen gorakada.
- Bisitarien formari dagokionez, bikoteka egindakoak (% 38) eta familian egindakoak (% 25) nagusitzen dira, lagun taldean egindakoak ere bai (% 28), edo talde antolatuan (% 16) egindakoak, eta murriztagoa da bakarkako bisitarien agerpena (%4). Aurreko urtearekin alderatuta, taldean egindako bisitak dibertsifikatu egin dira.

1. Haur eta gazteak
2. Helduak
3. Ikastaroak
- G. Guztira



Inkestatutakoen %98k adierazi du bisita gomendatuko lukeela

Balorazioa

Museoaren alderdirik baloratuenak hauek dira: jasotako tratua (4,6/5), ordutegia, barneko irisgarritasuna, aretoetako azalpenak eta erosotasuna. Balorazio kaskarrenkoak, berriz, sarbideak eta komunikazioak, eta prezioa (3,9/5).

- Denboraldiaren arabera, erosotasunak beherakada dauka muturreko tenperaturak direla-eta (uda) eta sarbideen eta aparkalekuaren puntuazioak behera egiten du (turismoko goi-denboraldia Getarian).
- Ordutegiek balorazio kaskarragoa jasotzen dute udazkenean, eta horrek pentsarazten du bisitariak eskainitako ordutegira egokitu behar izan dutela, zeina murriztagoa den garai horretan.
- Prezioari dagokionez, alderdi horri balorazio kaskarra eman diotenen (5etik 1 edo 2 puntu, inkestatutakoen % 8) % 80 beste erkidego batzuetatik etorriak dira, % 10 EAEko publikoa dira eta gainerako % 10 atzerritarak.
- Ez dago korrelaziorik museoa aurretik bisitatu izanaren eta gogobetetze mailaren artean, bi kolektiboen arteko maila homogeneoa da.
- Ez dago korrelaziorik bisitarien denboraren eta gogobetetze mailaren artean, bisitan denbora gehien eman dutenen eta gutxien eman dutenen arteko maila homogeneoa da.
- Balorazio orokorra 4,4/5 da, 2016koa baino pixka bat baxuagoa (4,6/5) eta 2015ekoa baino altuagoa (4,3/5).
- Inkestatutakoen % 98k adierazi du bisita gomendatuko lukeela.
- Programa hezitzaileko jardueren publiko erabiltzaileak -bai araututako ikastetxeetako ikasleentzako jarduerenak, bai haur, gazte eta familientzako, nagusientzako edo behar bereziak dituen publikoarentzako sentsibilizazio jarduerenak, bai profesionalentzako programarenak- bilakaera positiboa izan du, eta are museoako erakusketen bistarien kopurua baino proportzio handiagoan hazi da aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 30 inguru.
- Museoaren espazioko kultura-aisialdiko jardueren eta programazioaren publiko erabiltzaileari dagokionez, horrek ere joera positiboa erakutsi du; 2016an 2.213ziren, eta 2017an 3.648.



Programazioa

Mezenasei eta bildumei buruz: *Rachel L. Mellon Collection* erakusketa

2017ko lehen hilabeteetan (maiatza arte) *Balenciaga*, *legatu denboragabea* bildumaren aurkezpena mantendu da Museoaren diskurtsoaren egituratzaile egonkor gisa, eta aldi berean egon da ikusgai *Ikatza eta Belusa*. *Ortiz Echagüeren eta Balenciagaren begiradak herri-jantziari* aldi baterako erakusketa, 2016ko azken hiruhilekoan inauguratua.


Urteko berrikuntza handia *Rachel L. Mellon Collection* (2017 maiatzak 26-2018 urtarrilak 25) erakusketaren ekoizpena izan da, zeinak museoko 5 areto hartu dituen eta erakusketa zabalagoa eta sakonagoa aurkeztearen aldeko apustu estrategikoaren hasiera dakarren, urtebeteko iraupenekoa, erakusketa iraunkorraren eta aldi baterako erakusketaren orde.

M. Givenchyk zuzenduta eta Eloy Martínez de la Pera eta Igor Uriaren komisario-lan elkartuarekin, erakusketa honen bidez Mellon familiarekin hartutako konpromisoa bete da, harengandik 400dik gora janzkera-piezaren donazioa jaso baitzuen museoak 2014an, balioa eman baitzaio prentsaren eta erakunde espezializatuen neurri bereko interesa piztu duen legatuari.

Erakusketaren diskurtsoaren xedea, Mellon bildumaren bidez, Balenciagaren mugarriari eta hark Modaren Historiari egindako ekarpenei balioa ematea zen, bi pertsonaien arteko paralelismoak eta bezeroaren eta sortzailearen arteko aparteko harremana nabarmenduz, zeina Goi-mailako Joskintzako Etxeen testuinguru zainduari esker zen gertagarri.

Horrez gain, Mrs. Mellonen bildumagile papera nabarmendu da, bai eta eta hark etxean zuen estatus berdinek gabekoa ere, zeinak aukera ematen zion, berarentzat eskusiboki diseinatutako eskariak jasotzeaz gain, diseinuak aldatzeko ere.

Mellon bilduma osatzen duten 600dik gora ehun- eta dokumentu-erreferentzietatik 150 pieza adierazgarri aukeratu dira, gehienak aurretik erakutsi gabekoak. Zehazki, 97 janzkera-pieza, jatorrizko dokumentazioarekin eta objektu pertsonalekin batera: zirriborroak, gutunak, fakturak, argazkiak eta abar.



Erakusketa honek urte osoaren testuinguruan bete behar zituen helburuek zerikusia zuten nazioarteko presentziarekin eta lankidetzarekin, erakusketaren kalitatearekin eta kultura mailarekin, eta haren sustapenarekin eta hura Mendeurreneko nazioarteko erakusketa handien ondoan posizionatzearekin, eta horiek denak bete egin dira.

Maileguan jaso dira, halaber, Londresko V&A Museumeko bildumako hiru pieza, Parisko Balenciaga Artxiboetako beste bat (Mrs. Mellonen bustoa) eta Versaillesko jauregiko *Potager du Roi* maketa.

Museografiako zuzendaritzan Ikerne Giménez eszenografoaren laguntza jaso da, eta ekoizpena zatitan banatu eta museotik bertatik koordinatu da. Zatien bolumen ekonomikoaren eta ekoizpenerako denboraren urritasunaren ondorioz, esleipen zuzenaren aldeko hautua egin da kasu guztietan.

Ezaugarri hauek dituen erakusketa batek ahalegin ekonomiko handia eskatzen du; izan ere, museoan orain arte egindako erakusketek baino dedikazio handiagoa eskatzen du: komisario-lanak eskatutako baldintzak betetzea, lortu nahi den inpaktu mediatikoa, pieza ugari, areto gehienak erabiltzea, manikien behar bereziak...

Aldez aurretik uste izatekoa zen museoak egindako beste batzuen aldean proiektu hau erakargarriagoa izango zela babesle pribatuentzat, eta lankidetzaz horiek gauzatzeko lan egin baldin bada ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren Turismo Sailarekin Bonaveri maniki-enpresarekin eta Swarosky eta Keneth Lane bitxi-enpresekin baino ez da lortu.

Erakusketa honek urte osoaren testuinguruan bete behar zituen helburuek zerikusia zuten nazioarteko presentziarekin eta lankidetzarekin, erakusketaren kalitatearekin eta kultura mailarekin, eta haren sustapenarekin eta hura Mendeurreneko nazioarteko erakusketa handien ondoan posizionatzearekin, eta horiek denak bete egin dira.

Bunny Melloni eskainitako aldi baterako erakusketa ezin da egin, M. Givenchyk berariaz adierazitako nahiari jarraituz, Aldamar Jauregian beste erakusketa bat egiten den aldi berean, eta gainera erakusketa honek daukan garrantziaren eta eskatzen duen aurrekontuaren ondorioz hori ezinezkoa izango zatekeen.

Rachel L. Mellon Collection
erakusketaren piezak
Gaueko soinekoa. 1962
Gaueko soinekoa. 1965
Koktel soinekoa. 1961
© Estudio Outumuro /
Cristóbal Balenciaga Museoa

Sarrera berriak bildumetan



Aurten Mellonen 2014ko legatuaren balioa agerian jarri baldin bada ere, nabarmentzekoa da, 2017an, museoko bilduma garrantzitsuei ondasun kulturalen 34 erreferentzia inbentariatu berri gehitu zaizkiela, horietako gehienak Balenciaga Etxeetan eta EISAN egindako jatorrizko jantziei eta kapelei dagozkienak.

Beren aniztasunarengatik eta bilduman eduki berria delako, nabarmentzekoa da jatorria Balenciagaren Frantziako hornitzaile nagusietako batean duen ehun-erakustegia. Horrek inauguratzen du ehun-dokumentu historikoen bilduma, 50eko eta 60ko hamarkadetako data duten 36 ehunen erakusgarritz eta 42 azalpen-fitxaz osatua.

Tissutekan dauden ehunak honako hauek dira:

Bolivard	Mousseline
Cannelé	Ottoman
Chenille	Organza
Cigaline	Panne (velours panne)
Cloqué	Percalé
Crêpe	Piqué
Crêpe anglais	Plumetis
Crêpe de Chine	Pongé
Crêpe Georgette	Popeline
Crêpe satin	Satin
Damas	Sergé
Dentelle de Chantilly	Serge quadrille
Façonné	Shantung
Faille	Taffetas
Flanelle	Tarlatane
Gazar	Tweed
Gaze	Velours
Gros-grain	Ziberline
Gros de Naples	Zagar
Ikat (taffetas changeant)	Soie Imprime
Marquissette	Soie brodé
Mélusine	Soie broché
Moire	

Ehun-erakustegia
© Cristóbal Balenciaga Museoa



Modaren kultura baterantz: programa hezitzailea publiko guztientzat

Programa hezitzailearen barruan, sendotu eta zabaldu egin dira edukien tipologia horiek eta gora egin du erabiltzaileen kopuruak, formatuak etenik gabe ebaluatuz eta berrituz eta proposamen berriak eginez. Programa hezitzaileek oso harrera ona, kalitate handia eta hazteko potentzialtasuna dutelako nabarmentzen dira, eta askotariko erabiltzaileen gogobetetze maila 10etik 9,5 edo hortiko gorakoa da kasu guztietan.

Moda ezagutzarako tresna gisa

Eskola programako tailerra
© Cristóbal Balenciaga Museoa



Eskola programako bosgarren ikasturte kontsektiboaren ondoren, adibidez, eta jardueren hainbat berrikuspen eta egokitzapenen ondoren, halaxe nabarmentzen dute parte hartu duten irakasleen iritziek: programan parte hartzeko motibazio nagusiari buruz galdetutakoan, inkestatutakoan % 30ek erantzun zuen jardueren edukiak bultzatu zituela proposatutako ekimenetan parte hartzera. Horietako askok, gainera, ikasgelan landutako gaien eta programako berezko gaien arteko korrelazioa nabarmendu zuten aldeko elementu gisa esperientziaren amaieran: «Arloan landutako gaia», «Oso egokia gure proiekturako», «Eskolan lantzen den curriculumarekin lotura duelako», «Se ajusta perfectamente al ciclo que impartimos» (Oso ondo egokitzen zaio ematen dugun zikloari), «Sormena lortu eta gustora aritu dira beraiek dakizkiten edo ikasitako ezagutzak landuz», «Me parece interesante aplicar lo que vemos en la clase» (Interesgarria iruditzen zait ikasgelan ikusten duguna aplikatzea), «La moda no se trabaja en el sistema educativo, además, nos ha servido para revisar conceptos y crear conexiones. Los alumnos han visto que las clases de historia sirven para algo» (Moda ez da lantzen hezkuntza sisteman, gainera kontzeptuak berrikusteko eta konexioak sortzeko balio izan digu. Ikasleek ikusi dute Historiako eskolek zerbaitetarako balio dutela) eta abar. Parte hartu duten haurrek jarduerari buruz egindako balorazioak jasotzeko sistema bat ere ezarri da.

Moda sentsibilizaziorako tresna gisa

Hezkuntza ez formalaren tipologian sartutako jarduerak hezkuntza araututik kanpo garatzen direnak dira, eta ekimen askotarikoak eta izaera ludikoagoak dira. Museora beste modu batez hurbiltzeko aukera ematen dute, eta edukiak barneratzeko bestelako metodo bat, modaren prozesu inplizituen, haren izaera artistiko eta sortzailearen, kontsumo iraunkorrean duen arduraren eta abarren balioetara bideratutako sentsibilizazio helburu batez.

Kategoria honetakoak dira familientzako programaren ekintzak, hurren aisialdikoak eta askotariko ehunteknikei buruz nagusiei zuzendutakoak. Urtean zehar, guztira, 7 familia tailer, oporretako kanpamentua eta haur eta gazteen udako harrera antolatu dira.

Moda integraziorako tresna gisa

Premia bereziak dituen publikoarentzako programak helburu hauei erantzuten die:

- Erantzuna eman eta museorako zein haren edukirako sarbidea erraztu ahalik eta kolektibo gehienei, eta bereziki dinamika espezifikoak behar izatearen ondorioz museoaren erakusketa- eta heziketa-proposamenetarako sarbidea zail dutenei.
- Harremanak eta loturak ezarri askotariko kolektibo eta/edo komunitateekin haien ezaugarriak eta premiak ezagutzeko, hartara, erantzun egokia eman ahal izateko, ekintza integratzaileak definituz eta bakoitzarentzako programa espezifikoak sortuz.
- Ondare kulturala eta, zehazki, moda eta Cristóbal Balenciagaren sormen-lanak erabili, askotariko kolektiboen gaitasunak estimulatzeko eta ezagutza pertsonal handiagoa eskuratzeko tresna gisa.

2017an, Kutxa Fundazioarekin lankidetzan, hainbat ekimen garatu dira museoaren askotariko publikoentzako ate eta zubi izateko eta haien integrazioan laguntzeko, museoaren barruan ikusgarritasuna eta existentzia emanez.

- *Bisita eta bainu egokitua hondartzan mugikortasun murriztua duten pertsonentzat.* Museoak eta Getariako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Kutxa Fundazioaren eta Gurutze Gorriaren laguntzaz, mugikortasun murriztua duten pertsonen osatutako taldeei sarbidea eta inklusioa erraztera bideratutako plan paregabea aurkeztu zuten iragan uztailean: *Murgil zaitetz!* Esperientzia horrek Museorako bisitaz gainera, bainu lagundua eskaintzen zuen Malkorbe ur guttiz lasaietako hondartza apainean.
- *Bisita egokituak ikusmenean eta entzumenean mugapen funtzionala duten pertsonentzat.* Bisita egokituaren asmoa da erantzuna ematea premia bereziak dituzten pertsonen, Museoko edukiak eta ibilbideak talde eskatzaileen ezaugarrien arabera egokituz.

Bisita egokitua
© Cristóbal Balenciaga Museoa



Kutxa Fundazioarekin lankidetzan, hainbat ekimen garatu dira Museoaren askotariko publikoentzako ate eta zubi zateko

Ikusmenean mugapena duten pertsonen kasuan, ukimenezko baliabideak eta erakusten diren obren erreprodukzioak egiten hasi gara, horien ulermena errazteko. Material horiek –hala nola ehun-erakustegi bat eta/edo Cristóbal Balenciagak ezagutarazitako silueta iraultzaileen antzeko elementu formalen multzo bat– lagundu egingo dute haren sormen-lanetan erabilitako ehunen bakantasuna eta jostunak aurkeztutako proposamen formal berritzaileak ulertzen.

Orain arte sortutako ukimenezko baliabideak Donostiako ONCEko kide batzuek egindako bisitan probatu ziren, eta balorazio oso positiboa izan zuten.

Entzumenean mugapena duten pertsonen bisitetarako, berriz, zeinuen hizkuntza dakien eta pertsona gorren taldeei harrera egin ahal izango dien elkarte eta/edo pertsona batekin lankidetzan aritzeko formula lantzen ari gara, bai eta zerbitzu hori doakoa izatea lortzekoa ere.

- *Bisitak eta tailerra mugapen psikiko eta intelektualak dituzten pertsonentzat.* Bisita eta tailer horiekin mugapen psikiko eta intelektualak dituzten pertsonen interesetara eta premietara egokitutako hurbiltze esperimentalak erraztu nahi da, eta asmoa da haien eta haiekin lan egiten dutenen eguneroko bizitzan tresna baliagarri bihurtzea, Museoaren eta haren edukien potentziala nabarmenduz haien lanerako baliagarri izan daitekeen beste tresna baten moduan.

Profesional soziosanitarioekin eta tokiko ehun-artisten parte-hartzearekin egindako bisita-tailerren bi edo hiru formula landu nahi dira, eta zerbitzu horren doakotasuna haren hartzailentzat.

Orain arte proposatutako askotariko formuletan 152 pertsonak hartu dute parte, eta emaitzak efektiboak eta gogobetegarriak izan dira.

Bisita egokitua
© Cristóbal Balenciaga Museoa



Modaren tradizioa eta ofizioa

Nagusientzat, askotariko ehun-tekniken tailerrak egin dira, tokiko artistak eta eskulangileek zuzenduta publiko amateur-aurreratuarentzat, erakusketako gaiekiko loturen mesedetan jokatu. Honako tailer hauek programatu dira::

- *Euskal herri-jantziaren interpretazioa eta sorkuntza* Ane Albisuren eskutik.
- *Soingaineko baten interpretazioa eta sorkuntza* Capas Seseñaren eskutik.
- *Euskal burukoaren interpretazioa eta sorkuntza* Gill Connonen eskutik.

Horrez gain, ehun-tekniketan sakondu nahi dutenentzat, lehen aldiz eta Kutxa Kultur Moda programarekin lankidetzan, 9 saioz osatutako hiru hilabeteko tailer bat egin da, eskuzko ehun-estanziozko tekniktara hurbiltzekoa. Parte-hartzaileek serigrafiako *Low Tech* prozesuak gertutik ezagutzeko aukera izan zuten, hau da, intsolatzeko makineriaren beharrik gabeko serigrafiako artisau-metodoak.

Balenciaga transmititu, Getariatik mundura

Balenciagaren eta Balenciagari buruzkoen ezagutza transmititu beharra Museoaren misio hezitzailearen ardatzean dago. Aurten aurrenekoz garatu da curriculumaren inguruko lankidetzat bat Moda arloko heziketan espezializatutako ikasketa zentro batekin, hala maila nazionalen nola nazioartekoan.

Critóbal Balencaga Mueoak eta Central Saint Martins-UAL-ek, 2016an izandako esperientzia pilotu baten ondoren, heziketa proiektu batean inplikatzeko dituen lankidetzat hitzarmena sinatu zuten, eta proiektu horretan eskolako ikasleek Critóbal Balenciagaren jatorria ezagutuko dute eta horrek jostunaren sorkuntza lanetan izan zuen pisu erabakigarriaren berri jasoko dute.

Balenciaga and the Popular Costume proiektuaren ardatza da tradizioak eta herri-sustraiak sorkuntza berriaren iturri moduan aurkezten dituen ideia. Nazionalitateetatik eta kulturetatik haragoko gai bat da, baina kasu honetan Critóbal Balenciagaren obra adibidetzat hartuta. Horixe da hain zuzen ere museoko erakusketak zentralaren gaia; erakusketak horretan *Ikatza eta belusa. Ortiz Echagüeren eta Balenciagaren begiradak herri-jantziari* erakusketaren komisarioek urtebete baino gehiagoz egindako ikerlana islatzen da, non lehenengoaren argazkien eta bigarrenaren jantzi-sorkuntzen arteko elkarrizketaren bidez, bi egileek hirugarren elementu bati buruz egindako interpretazioa azaleratzen den, Espainiako herri-jantzia.

Nabarmentzekoa da, kasu honetan, proiektua curriculumekoa izan dela CSM-UAL-en, eta hala *Fashion Design Womenswear*eko nola *Fashion Print*eko ikasleak inplikaturik daudela ikerketa eta sorkuntza prozesuan, aipatutako marko tematikoan. Orotara 64 ikasleak eta 4 irakasleak egin zuten *study trip* bat Museora 2017ko urtarrilean. Ikasleek arlo bakoitzeko arduradunek gainbegiraturik lan egin zuten eta beren materialak

Masterclass. Miguel Elola
© Cristóbal Balenciaga Museoa



Balenciagaren eta Balenciagari buruzko ezagutza transmititu beharra Museoaren misio hezitzailearen ardatzean dago

Masterclass. Javier Martín
© Cristóbal Balenciaga Museoa



entregagaietan islatu zituzten: beren ikerketa eta sorkuntza prozesuaren dokumentazioa eta *look* oso baten lanketa, zeina bi erakundeek elkarrekin baloratu zuten. Lan onenak aukeratu eta gero, Fashion Communication-eko ikasleek komisario-lanak, argazkiak eta grabazioak egin zituzten materialekin, *online* erakusketa bat osatzeko.

Aldi berean, lankidetzako praktikak eta proiektuak ugaritzeko lan egin da Estatuko zentro espezializatuekin, Cristóbal Balenciagaren figuraren eta obraren azterketan sakontzea helburu izanda.

Curriculumari lotutako gaitasunak garatzen dituzten ekintza koordinatuak dira, ikasgelan ikusitako eduki orokorrak Museoako bildumen eta haren programa hezitzailearen ekarpenen bidez sortutako informazioan oinarritutako adibide espezifikoeekin lotzen dituztenak.

Hori da AEG Ikastetxearen kasua, zeinarekin museoak lankidetzaren hitzarmena duen 2012az geroztik. Hori da, baita ere, 2017an ikasketa zentro espezializatu kopuru hautatu bati eskusiban diseinatu eta eskainitako ekimen batean parte hartzeko sinatutako hitzarmen berrien kasua; hitzarmen horrek jostunaren legatu teknikoan sakontzea eta Balenciaga lepoa deritzona egiten ikastea proposatzen du. Museoak hutsune bat hautemana zuen urte batzuk lehenagotik, irakaskuntza espezializatu eta ikasleei zuzenduta, bisitaren osagarri izango liratekeen eta eskatu ahala egin ahal izango liratekeen jardueraren hezitzailearen eskaintzan. Gabezia horri aurre egiteko, unean uneko erakusketari egindako bisitaz gain jostunaren ekarpen teknikoetan sakontzeko ariketa praktiko bat eskainiko lukeen bisita-formula bat asmatu zen, hartzaile den publikoaren mailari egokitua eta helburu horretarako sortutako baliabide hezitzaileetan oinarritua.

Bestalde, 2017an zehar bi eskola magistral eman zituen Javier Martinek. Gaur egun DELPOZO enpresako profesional aktiboa da, eta bere prestakuntza urteetan Carmen eta Emilia Carriches ezagutu zituen, Madrilgo EISA tailerreko langileak eta tailerreko nagusi Felisa Irigoyenen lehen eskuak izan zirenak. Haiengandik ikasi zituen Cristóbal Balenciagaren jostuntza teknikak, bai eta bere diseinuetan eragin erabakigarria izan zuten eraikuntza arloko ezagutzak ere. Sybillatik bere firma propiora arte egindako ibilbide luzeak, irakasteko duen gaitasun handiak eta Cristóbal Balenciagarekiko pasio zintzo eta zorrotzak *Transmisioak* deritzen eskola magistraletarako irakasle perfektua bihurtzen dute.

Lehen saioa, *Modelatzeko metodarako eta herri-jantzietan inspiratutako bolumenen eraikuntzarako hurbilketa* izenburua zuena, *Ikatza eta belusa* aldi baterako erakusketaren testuinguruan egin zen, udaberrian, eta 20 ordu iraun zuen. Eskola magistral horren edukia modelatze metodarako eta herri-jantzietan inspiratutako bolumenen eraikuntzarako hurbilketa bat proposatu zuen, eta haren garapen praktikoak prozesu horien teknika espezifikoak gauzatzea izan zuen helburu.

Bigarren proposamena udazkenean garatu zen, *Rachel L. Mellon Collection* erakusketaren testuinguruan, eta 20 ordu iraun zuen hark ere. *Goi-mailako Joskintzako tekniketara hurbilketa* zen proposatutako gaia. Saio guztietan Balenciaga etxeetan erabilitako joskintzako metodo espezifikoek erakustaldia egin zen, eta, parte-hartzaileek horien gaineko gaitasun praktikoak har zitzaten, horiek aplikatzea eskatzen zuten zenbait modelo egitea proposatu zen.

Teknifikazioa: Museoa eta Modako profesionalak

Cristóbal Balenciagak bere lehen etxea Donostian ireki zuenean abian jarritako abentura sortzaile eta enpresarial handiaren 100. urteurrenaren eta Balenciaga-Paris enpresaren 80. urteurrenaren testuinguruan, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen programaren barruan, Museoak bere proiektua aurkeztu zuen, hura modari lotutako profesionalen teknifikaziorako urteroko hitzordu bilakatzeko asmotan. “Modako ekintzailletza gaur” lehen ekitaldiak urteurrenaren lerro tematikoa bereganatu zuen, berrikuntza ardatz harturik, modako sektorearen barruko negozio ekintzailletza gisa.


Ikastaroa, Kutxa Kultur Modarekin eta Donostiako Sustapenarekin lankidetzan eta Estudio Yox zuzendari-laguntzaile zela antolatua, Miramar Jauregian egin zen. Modaren negozioan estrategikoak diren arloetan adituak diren hiru hizlariren hitzaldiekin osatutako jardunaldiak ekarpen espezializatuak ez ezik gaur egungo testuinguruko erronken eta aukeren ikuspegi orokor bat ere eskaini zuen, eta sektorean ekintzaile gisa arrakasta izateko funtsezkoak diren gaitasunak eman zituen. Modaren diseinuaren eta kudeaketa komertzialaren arloetako ikasle eta profesionalai, joeren analista diren zuzendari sortzaileei, publizistei eta modan interesatuta dagoen orori zuzenduta zegoen batez ere ekimena. Proposatutako gaiak eta hizlariak honako hauek izan ziren:

- Javier Plazas, *Joerak modan: Aurreratu, lehiatzeko*. Azalpenak joeren fenomenoaren eta horiek modan ekintzaile izateko prozedura kritiko gisa duten funtzioaren ulermenean sakondu zuen, eta joerak hautemateko, interpretatzeko eta aplikatzeko metodologiak eman ziren.
- Elsa Rey Álvarez, *Komertzializazio eredu berriak modan*. Saio honetan, gaur egun elkarren ondoan bizi diren moda komertzializatzeko ereduetan, haien abantailetan eta eredu tradizionalaren erronketan sakondu zuen, bai eta teknologia berriak arlo horren barruan nazioarteko testuinguruan izaten ari diren inpaktuan ere –estrategia enpresarial berria, retail kudeaketa sistemak, e-commerce, omnikanalitatea, bezeroaren esperientzia berdinek gabekoa, showrooming eta webrooming fenomenoak eta abar–.
- Carlos Delso Mion, *Modan ekintzaile izateko erronkak eta aukerak gaur egun*. Hitzaldi hau gaur egun modaren munduan ekintzailletzari aurkezten zaizkion erronkei eta aukerei buruzkoa izan zen, modaren industria bere jardueraren askotariko arloetan izaten ari den eraldaketen analisiaren bidez.

Horrez gain, eta urteurreneko programazioarekin bat etorrita, udazkenean espezializazio ikastaro bat egitea erabaki zen modako markaren sorrerari buruz, Toby Meadows adituaren eskutik eta Univerity of Arts - London College of Fashion-ekin lankidetzan. Toby Meadows *How to Set up & Run a Fashion Label* [Nola sortu eta kudeatu modako marka bat] bestsellerraren egilea da, Three's Company sorkuntza-aholkularitzaren sortzaile eta zuzendaria eta Belle & Bunty emakume-arropako diseinu-marka londrestarraren zuzendaria. Modako enpresa txiki eta ertain askori aholkularitza eskaintzeaz gain, Toby mundu osoko moda-negozio ezagun eta garrantzitsuenetako batzuetan lan egin du, hala nola Zara eta Topshop, bai eta luxuzko marketan ere, esate baterako Ralph Lauren, Gucci, Christian Dior, Alexander McQueen eta Vivienne Westwood. Gaur egun, Centre for Fashion Enterprise-ko aholkulari da, zeinak gorabidean dauden diseinatzaile berrien hurrengo belaunaldiarekin lan egiten duen. Ikastaroak Kutxa Kultur Modaren eta Donostiako Sustapeneko Donostia Moda Klusterraren babesa izan du.

Azkenik, hori ere udazkenean, eta Work Experience Fashion-ekin lankidetzan, *Berreraikuntza eraldatzailea* patroigintza-sistemari buruzko workshopa egin zen, hura asmatu duen Shingo Sato japoniarraren eskutik. Metodo horrek patroigintzaren arlora sormen prozesu berritzaileak ekartzen ditu. Teknika bolumenaren gaineko diseinuan eta hura gorputzaren anatomiara egokitzean oinarritzen da, elementu bolumentrikoak hartuz, hala nola gorputz geometrikoak, arkitektura eta origamia, eta emaitza gisa forma eta silueten batuketa lortuz. *Workshop* horrek 16 ordu iraun zuen orotara.

Workshop. Shingo Sato
© Cristóbal Balenciaga Museoa



Museoa, aukera kulturalen gune

Epigrafe honetan museoak eskaintzen dituen jarduera kultural osagarri guztiak sartzen dira, bai eta haren lankidetzaren dutenak ere. Esate baterako, bere edukiaren zabalkunderako beste formula batzuk xedea dutenak eta museoa aukera kulturalen gune gisa baliatzeko. Jarduera horiek aldizka edo modu puntualean egiten dira, aldi baterako erakusketei lotutako programazio espezifiko bati, modarekin zerikusia duten jardueri edo inguruko eragile kulturek sustatutako beste jarduera kultural bati erantzuteko, adibidez.

Hitzaldiak / jardunaldiak / topaketak

